

KANALAK

Gure produktuak saltzeko zuzeneko kanalak erabiliko genituzke, hau da, denda propioak irekiko genituzke inolako frankiziarik gabe. Horrela langileen konpromiso eta enpresarekiko lotura handiagoa izatea lortuko genuke. Denda hauek hasiera batean fabrikatik gertu dauden hiri nagusietan kokatuko genituzke, horrela, hasieran garraio kostuak baxuak izango ziren eta hori onuragarria izango zen hasieran kostuak al bait gehien murriztu behar direlako oso ugariak direlako. Enpresa garatu ahala eta egoera ekonomikoa hobetu ahala denda gehiago zabalduko genituzke gure denda sarea haziaraziz. Horri esker bezeroak izateko aukera handituko zen, hiri gehiagotan izanda erosleak izateko aukera asko handitzen delako.

Produktuen salmenta dendan egin arren gure denda sarearen bidez edo bezeroaren etxean egin arren disenatzailea bidaltzen dugulako bezeroak nahi badu gure enpresak web-orri bat izango zuen. Bertan gure produktu guztiak agertuko ziren eta horiek duten pertsonalizazio guztiak, horrela bezeroek aurrez aldetiko ideia bat egiteko aukera izango zuten dendara joan aurretik.

Produktuen banaketaz gure enpresako garraiolariak arduratuko ziren, ez genituzke garraio sektoreko enpresak kontratatuko horretaz arduratzeko, denden kasuen arrazoi beragatik, hau da, langileen guztizko konpromisoa nahi dugulako. Eta garraiolariak ohea eramateaz gain ohea montatuko zuten, garraiolariak izateaz gain montatzaileak ere direlako, eta horrela bezeroek lehenbailehen izango zuten montatuta haiek eskatutako ohea.